2026-11-27 OSTIRALA
1.772. ZENBAKIA

LASARTE-ORIAKO ALDIZKARIA
TXINTXARRI.EUS / TOKIKOM.EUS

txintxarri

GIZARTEA

Elkar hobeto ezagutzeko eta sareak indartzeko topaketa egin dute, su artean

Bizi-Lagunak elkarteak antolatutako aurreneko otordua izan da. Semblante Andaluz elkartean batu diren haurrek nahiz helduek primerako arratsaldea igaro dute. Gehiago egingo dituzte etorkizunean / 7

EKONOMIA

Aterpeako bazkide diren zazpi ostalarik prestatutako pintxo goxoen bidea egin dute herritar ugarik / 6



TXINTXARRI

GIZARTEA

Kolorea, memoria, alaitasuna eta hunkidura izan ditu Zabaleta auzoko udazken festak / 9

KIROLA

Lasarte-Oriako kirolariak, Gipuzkoako txapeldun xakean zein Belodromokoan / 10



Aldarriz eta haserrez bete dituzte kaleak

Azaroaren 25aren bueltako ekimenak aurrera eraman dituzte udalerrian zein eskualdean / 2-3

TXINTXARRI



GIZARTEA

Kaleak aldarriz, haserrez, amorruz eta garrasiz bete dituzte feministek

Ikastetxeetan eta eskualdean ere mobilizazioak aurrera eraman dituzte

Iñigo Gonzalez Sarobe

Herriz herriko mugimendu feministetako kideek manifestazio jendetsuak zituzten hilaren 25ean eta Lasarte-Oria ez da salbuespena izan. Dozenaka herritarrek bat egin zuten deialdiarekin eta erdigunea zeharkatu dute *Misoginia eta transfobiaren aurrean autodefentsa feminista* lelodun kartelaren atzean. Ekintza amaitu ostean eragile horretako kideek aurkeztutako proposamenari babesa eman zioten, Emakumeen Etxearen araudiari eta funtzionamenduari ekarpenak egingo dizkionari.

Erdigunea zeharkatu ostean, komunikatua irakurri zuten Okendo plazan. Nabarmendu zuten feminismoaren izenean ez dutela onartuko ez diskurtso arrazistarik ez polizia gehiago inguruan izaterik, "segurtasunaren aitzakipean". Kontrara, justizia feminista sinesten dutela azpimarratu zuten, baita hori eraikitzen jarraituko dutela ere. "Ez gara etxean geratzen ari eta kaleak hartzen jarraitzen dugu; gaur, Euskal Herri osokoak". Aldarrikatu zuten ez direla "atzera egiteko jaio" eta "autodefentsa feminista" erabiltzen jarraituko dutela borrokatzeko.



aSUnak-eko kideak eta gainerako manifestariak, erdigunea zeharkatzen. TXINTXARRI



Oriarte Larrekoetxe institutuan egindako kontzentrazioa. ORIARTEKO IKASLE ASANBLADA

Kontzentrazioak ikastetxeetan

Oriarte Landaberri zein Larrekoetxe eraikinetako dozenaka ikaslek kontzentrazioak egin zituzten egun horretan. "Dagozkigun eskubideak aldarrikatzeko elkartu gara Emakumeen Aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Egunean. Emakumeok asko sufritu dugu eta sufritzen jarraitzen dugu, nahiz eta batzuk hori ulertu nahi ez duten", adierazi zuten. Andreenganako indarkeria "gizarte osoaren arazoa" dela azpimarratuta, "nahikoa" dela ozen oihukatu zuten.

Aldarrikapenerako eta protestarako eguna izanagatik, "biktimak zenbatzen jarraitzekoa" ere bazela salatu zuten ikasle asanbladako kideek. "Aurten 44 hildako erregistratu dituzte Espainiar Estatuan, eta Euskal Autonomia Erkidegoan 4.814 emakume izan dira biolentzia matxistaren biktima". Datu horien aurrean, bi zentroetako patioetara irten eta emakumeen eskubideak aldarrikatu zituzten, *Ez dugu baimenik eskatu behar libre izateko A25* lelodun afixak erakustearekin batera.



Zenbait herritar Hernaniko mobilizaziora joan ziren. BURUNTZALDEKO ITAIA

Bestalde, Buruntzaldeko Itaia eragileak eskualdeko manifestazioa egin zuen Hernanin dagoen Gudarien plazan, 18:30etik aurrera. Dozenaka pertsona elkartu ziren ekintza horretan ere.



Sinadurak biltzen ari dira feministak. TXINTXARRI

Herritarren atxikimendu bila

Emakumeen Etxearen antolamendua eta funtzionamendua zehazteko kontsulta publikoa abiatu du Lasarte-Oriako Udalak. Proiektua herritarrekin batera diseinatzeko asmoz, lasarteoriatarren beharrei erantzungo dien espazio bat eratzeko nahia erakutsi dute Lasarte-Oriako mugimendu feministako kideek eta herriko beste eragile batzuetako lagunek.

Azaldu dutenez, orain arte "opakoa" eta "itxia" izan den zentroa Emakumeen Etxea bihurtzeko asmoa adierazi du udalak. Bertako egitura gaur egungo egoerara "egokitu" ez dutela uste duten horretan, jarrera horren alde agertu dira herriko eragileak. Dena den, irmoki defendatu dute aldaketa ezin dela izenaren moldaketa "hutsean" geratu.

"Erreferentziazko espazio publikoa"

Hasteko, defendatu dute "erreferentziazko espazio publikoa" izan behar duela Emakumeen Etxeak, "berdintasuna eta feminismoa" ardatz. Elkarbizitzatik eta elkartasunetik abiatuta, "espazio librea eta elkar zaintzekoa" izan behar du. Izaerari eta kudeaketari dagokionez, aldarrikatu dute "hizkuntza eskubideak" errespetatu beharko dituela, baita "begirada intersekzionala eta kulturartekoa" ere. Era berean, azpimarratu dute Emakume Etxearen funtzionamendua bi elementu hauen gainean sostengatu beharko dela: "Antolaketa eredu irekian eta erabaki ahalmenduan", hain zuzen.

Gaineratu dute "emakumeen eta genero disidenteen ahalduntzerako, gizarteko eraldaketak sustatzeko, aliantzak eta sareak sortzeko eta hausnarketarako, eztabaidarako eta formaziorako" martxan egon beharko duela. Egitura hori "herritarren eta eremu institucionalaren arteko espazio" gisa irudikatu dute. Hortaz, Udaleko Berdintasun sailak bertan eduki beharko luke bulegoa, eta bertako espazioak eskaini beharko lituzkete mugimendu feminista eta bestelako eragileentzat.

Bukatzeko, Emakumeen Etxeak "zerbitzu iraunkor eta integrala" ematea nahi dute, hots, langile publikoak izateaz gain, herriko gainerako guneetan eragiteko. "Kogestioa" aztertzea ere eskatu dute, "eremu herritarra" artikulatzeko modua izan daitekeelakoan, eta etxeak erabaki ahalmena izatea bermatu dadin.

Aldarriarekin batera, gehitu dute udalak abenduaren 1era arte eman duela tartea helegiteak erregistratzeko. Horrenbestez, herritarrak martxan duten kanpainarekin bat egitera deitu dituzte.

Alde batetik, sinadurak biltzen dihardute. Hilaren 25eko manifestazioaren ondorena baliatu zuten herritarren atxikimenduak pilatzen jarraitzeko. Dozenaka animatu ziren proposamen orria izenpetzera.

Bestetik, udaletxera euren eskarak babestera joatea animatu dituzte. Horretarako, herritar orok eskuorri hauek euren kabuz inprimatu eta sinatuta eraman beharko dituztela jakinarazi dute.



Okendo plazan batu dira udalaren elkarretaratzearekin bat egin dute herritarrak. TXINTXARRI



Biyak Bat koruko kideak kultur etxeko agertokian. TXINTXARRI

GIZARTEA

"Gaitzespenetik harago begiratzeko" aldarrikatu dute Okendo plazan

Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Egunaren harira. Lasarte-Oriako Udalak deitutako elkarretaratzean parte hartu dute hainbat herritarrek. Komunikatua irakurri eta isilunea egin dute gero



Makelur antzerki taldeko bi antzezle. TXINTXARRI

Txintxarri

Emakumeen aurkako indarkeriari ez lelodun afixa erakutsi zuten hilaren 25 egeurdian Okendo plazako elkarretaratzean bildutako herritarrek. Eguraldi hotz eta euritsua medio, udaletxeko arkupeetan babestu ziren bertaratu zirenak. Espazio hori more koloreko zenbait borobil formako informazio panelez bete zuten; indarkeria matxista kasuen gaineko informazioa erakusten dute, Izan ziren emakumeen aurkako indarkeria salatzeko zapiak, elastikoak eta bestelako osagarriak jantzi zituztenak ere.

Agerraldiari hasiera emateko komunikatu bat irakurri zuten Lourdes Acevedo eta Ainara Elicechea zinegotziek; gaztelaniaz egin du lehenak eta euskaraz, berriz, bigarrenak. Herritarrei dei egiten diete gaitzespenetik harago joateko. Hala, indarkeria matxistaren aurrean neutraltasun egoera posiblerik ez dagoela ere nabarmendu zuten hizlariek, eta gaineratu, ez begiratzeak, ez erreakzionatzeak edo isilik geratzeak ere ondorioak dituela. Hori horrela, emakumeen aurkako edozein indarkeria adierazpenen aurrean jardutera deitu zituzten herritarrak. Zenbait konpromiso hartu zituzten, hala nola, lasarteoriatarrak sentsibilizatzeko eta kontzientziatzeko kanpainak garatzea, erantzun publikorako eta herritarrek mobilizazioetarako dispositiboak artikulatzea edo herritarrek egiten dituzten salaketak eta alertak bideratzea eta egoera bakoitzean erantzun egokiak aktibatzea. TXINTXARRI-ren web atarian dago adierazpen osoa irakurgai. Ostean, isilunea egin zuten, eta txalo artean eman zioten amaiera, gero, elkarretaratzeari.

Kantua eta antzerkia

Biyak Bat koruko kideek mimoz prestatutako errepertorioa ekarri zuten kultur etxeko auditoriora. Emakumeen Aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Egunaren bueltan udalak antolatutako egitarauan parte hartu zuten eta gai horretan ardaztutako emanaldia erakutsi zuten, ederki abestutako kantuak uztartuta gidoi batean oinarritutako kontakizunarekin. Herritarrek lepo bete zuten aretoa.

Makelur Antzerki Taldeak, berriz, *Taberna paraíso, un año después* antzerkia eskaini zuen. Hori ere Manuel Lekuonan izan zen, hilaren 21ean, eta hori ere Azaroaren 25aren bueltan Lasarte-Oriako Udalak antolatutako egitarauaren baitan.

Emakumeak izan ziren antzerkiaren protagonista. Orotariko emakumeak; amak, ilobak, lagunak, bizilagunak. Ezagunak ala ezezagunak. Horiek denak Taberna Paraison elkartu, eta euren elkarrizketetik abiatuta ondu dute obra.





POLITIKA

Hauteskundeetan "balio bikoitza" duten botoak ematea eskatu du EH Bilduk

Herritarren alde lanean jarraituko dutela berretsi dute, "Madrilen eta edonon"

Txintxarri

Espainiako Gorteetarako Hauteskunde Orokorretarako egun gutxiren faltan ekitaldia aurrera eraman du koalizio subiranistak Antonio Mercero aretoan. Boz horietan Gipuzkoako zerrendako kide Xabi Lertxundik eta datorren maiatzean Gipuzkoako ahaldun nagusi izateko hautagai Maddalen Iriartek nabarmendu dute EH Bildu bozkatzea dela aukera onena, bi arrazoi nabarmenengatik: eskuinari bidea ixtea eta eskubide sozial zein nazionalak bermatzea. "Askatasuna, feminismoa, euskara eta Euskal Herriaren erabakitzeko eskubidea" ere izan dituzte hizpide.



Ezker-eskuin: Esti Garmendia, Maddalen Iriarte eta Xabi Lertxundi. TXINTXARRI

Mukuru zegoen hilaren 19an Antonio Mercero aretoa arratsaldeko zazpietarako. Ikusmina sortu zuen Iriarteren eta Lertxundiren etorrerak eta azkar bete zituzten eserleku denak herritarrek. Hasteko prest zeudela ikustean, datorren maiatzeko udal hauteskundeetan Lasarte-Oriako EH Bilduren hautagai Esti Garmendiak hartu zuen hitza, guztiei ongietorria egiteko eta gaur egungo testuinguruaren garrantzia azpimarratzeko.

Horren ostean, Lertxundik hartu zuen hitza. "Herritarren bizitzak hobetzeko konpromisoa" oinarri, etzi (hilak 29) EH Bilduren alde bozkatzea "balio bikoitzeko erabakia" dela adierazi zuen, "eskuin muturrari ateak ixteko eta Euskal Herriaren eskubideak Madrilen defendatzeko". Aurreneko faktore horri erreferentzia eginda, jakinarazi zuen "lotsarik gabe elkarrekin eskutik helduta" doazela PP eta VOX alderdiak: "Horren adibide da popularrek Gipuzkoan hautagairik ez aurkeztu izana senatari izateko, horrekin VOXi mesede egiteko". Horren aurrean, berretsi zuen "aukera eraginkorrena" koalizio subiranistaren aldeko botoa ematea dela.

Beldurraren aurka, komunitatea

Horiek guztiak esandakoan, Iriarteri eman zion lekukoa Lertxundik. Gipuzkoako ahaldun nagusi izateko hautagaiak Lasarte-Oriarekin duen lotura pertsonal eta sentimentala gogora ekarri zuen, hasteko. "Haurra nintzela amonarekin etortzen ginen Andoaindik, bere lagun Salome Urdangarinen etxera. Antton Mercero zinemagilearen ama zen; bai, guk Antton deitu izan diogu beti eta ez Antonio". Garai horietan herrian dena "egiteke" zegoela esan zuen eta, horrekin batera, urteotan guztiotan udalerriak izan duen bilakaera nabarmendu zuen, erreferentziazko pertsonak zein ekimenak zerrendatuta: Euskararen Maratoia, Maialen Chourraut edota Joxe Mari Agirretxe Porrotx.

Sarrerako gogoeta horren ostean etziko hauteskundeetan jarri zuen fokua. Gizartea "bidegurutze batean" dagoela ohartarazi zuen: "Aurrera ala atzera; beldurra ala itxaropena; autoritarismoa ala demokrazia". Eskuin muturreko blokeak, hau da, PPk eta VOXek osatutakoak, "herritarrak paralizatzeko beldurra eta gorrotoa" barreiatzen dituela salatu zuen, "emakumeen, langileen, migratzaileen eta hizkuntzaren eskubideak arriskuan jarrita". Horri aurre egiteko errezeta "komunitatea eta herritar bakoitzak egunero egiten duen lana" direla ziurtatu zuen: "Funtsezkoak dira".

Mezu indartsu honekin amaitu zuen hitzartzea, Kongresurako zein Senaturako bi botoak EH Bilduri ematea eskatuta: "Askatasunaren, feminismoaren, euskararen eta herri honen erabakitzeko eskubidearen alde lan egiten jarraituko dugu, Madrilen eta edonon".

POLITIKA

"Jendearen bizitza hobetzen jarraitzea" da sozialisten helburua, eskuinaren aurrean

Pentsio publikoen sistema "ukiezina" dela nabarmendu du Eneko Anduezak

Txintxarri

Froilan Elespe Herriko Etxean elkartu ziren PSE-EEren dozenaka ordezkari eta jarraitzaile hilaren 22an, Espainiako Gorteetarako Hauteskunde Orokorren kanpaina barruko ekitaldia egiteko. Alderdi sozialistaren EAEko idazkari nagusi Eneko Anduezak, kongresurako Gipuzkoako hautagai Rafaela Romerok eta Inklusio ministro Elma Saizek parte hartu zuten. PP alderdia buru duen eskuineko gobernua martxan jartzea "arriskutsua" izango litzakeela nabarmendu zuten, "alderdi sozialistak urteotan egindako hobekuntzak suntsituko lituzkeelako".

Argi hitz egin zuen Anduezak: "Alberto Nuñez Feijoo-k [PPren presidentegaia da] sakrifizioak egiteaz hitz egiten duenean, pentsiodunak ditu jomugan. Eta garbi esaten diogu pentsioen sistema publikoa ez dela ukitzen, lortutako eskubideak defendatzen dituen herrialde ausarta osatzen dugulako". Hori horrela, hilaren 29ko hauteskundeak "erabakigarriak" izango direla nabarmendu zuen, botoa ematera deituta dauden herritarrek zein herrialde nahi duten erabakiko dutelako: "Betikoei sakrifizioak eskatuko dizkiena edo jendearen eskubideak babesten dituena". Sozialistek "pluraltasuna eta aniztasuna besarkatzen dituen eta aurrera egingo duen Espainia" nahi dutela berretsi zuen.

Sozialisten EAEko idazkari nagusiak, batez ere, pentsioak izan zituen hizpide. Gai horretan sozialistek egindako lanaz harro azaldu zen: "Hilaren amaiera iristen denean eta pentsioak kobratzean nabaritzen dira hobekuntzak. Zortzi urte hauetan batez besteko erretiro-pentsioa % 45 igo delako eta kotizazio gabeko pentsioak, % 65". Pentsio publikoa jasotzearena langileek "egunero irabazitako eskubidea" dela nabarmendu zuen eta iragarri zuen urrats bat gehiago egin nahi dutela horiek hobetzeko bidean: "Espainiako Konstituzioan blindatu egin nahi dugu ordainsari horiek KPIaren arabera handitzea". Horregatik, sistema hori "hautetsontzietan defendatzera" deitu zituen herritarrak.

Etxean ez geratzeko deia

"Bizitza erdia zor diegun eta alargun geratu diren emakumeei, aita edo ama galdu duten gazteei eta lanera joateko goiz jaiki eta pentsioa kobratuko dutela jakin nahi dutenengatik, hilaren 29an ez dadila inor etxean geratu", adierazi zuen Romerok, sozialisten aldeko botoa emateko dei irmoa eginda. "Eskubideak eta pentsioak babestu" egin behar direlako, argi adierazi zuen Pedro Sanchez dela Espainiako presidente izateko pertsona aproposa, ez Feijoo popularra.



Eneko Andueza, Elma Saiz, Rafaela Romero eta Jose Ignacio Asensio. PSE-EE

Saizek, berriz, gaur egungo presidente Sanchezek aurreratutako "albiste ona" berretsi zuen, hau da, hilaren 24ko Ministroen Kontseiluan luzatu egin zutela bankuen gaineko zerga, "diru bilketan lehenengoak direnek lagun dezaten espainiarren kezka iturri nagusi den arazoa, etxebizitza eskuragarriarena". Zeregin horretara bideratuko dituzte tasa horren bidez biltzea aurreikusten dituzten 1.400 milioi euroak. "Gure helburua jendearen bizitza hobetzea da, PPren eta VOXen gezurren ereduaren aurrean".

Kanpainarekin amaitzeko, Lasarte-Oriako PSE-EEko kideak Andatza plazako azokan larrosak banatu zituzten hilaren 25ean. Rafaela Romero hautagaia ere bertaratu zen.

GIZARTEA

Osasun zentroko arreta "gero eta kaxkarragoa" dela salatu du LOOPAk

"Ordutegi murrizketak, itxarote epe luzeak eta mediku falta" arbuiatu ditu

Txintxarri
Lasarte-Oriako Osasun Zentroan ematen ari den arreta "gero eta kaxkarragoa" dela salatu du LOOPAk Lasarte-Oria Osasun Publikoaren Alde plataformak, eta "alarma seinaleak pizten" ari direla ohartarazi du. Aipatu eragileak gogorarazi du "borroka luze baten ondoren" herritar guztiek mediku bat edukitzea lortu zutela (nahikoa ez izan arren, kalitatezko osasun publikoaren bidean gutxieneko baldintza zela azpimarratu dute), eta aurretik, Lehen Arretan bizitako "mutturreko narriadura egoera latza" gainditu ko zelakoan, "konfiantza tarte bat" eman zietela osasun arduradunei, euren interbentzio maila apalduz. Orain, ordea, plataforma hori osatzen duten kideek uste dute arduradunek ez dutela konfiantza hori merezi, zentrotik iristen zaizkien albisteak eta esperientzia pertsonalak "oso kezkagarriak" direla iritzita.

Egungo egoera laburbiltzeko, LOOPAk salatu du kontsultetarako itxarote epeak "onartezin luzeak" izaten ari direla berriro, eta gero eta ohikoagoa dela hainbat arrazoirengatik kontsultan medikurik ez egotea; dirudienez, zazpi mediku ere falta izan diren egunak egon direla aipatu dute ordezkariek. Gainera, jakinarazi dute zantzu guztien arabera medikuek aurrez aurreko eta telefono bidezko arretarako dituzten orduak (ordu medikuak deiturikoak) lau ordu eta erditara mugatuko dituztela. Horri gehitu behar zaio anbulatorioko ordutegi murrizketa: "isilean" eta sarreran kartel baten bidez jarritako oharraren arabera, uda garaiko ordutegia (08:00etatik 17:00etara) urte osora zabalduko dela hemendik aurrera. Plataformak nabarmendu du hori guztia gertatzen ari dela Donostialdeko Etengabeko Arreta Guneen (Lasarte-Oriaren kasuan, Hernaniko Larrialdietako Eskualdeko Zerbitzuarena) egoera "guztiz eskasa" denean, bertan askotan medikurik ez baitago eta erizainek eman behar izaten baitute arreta; ekainaren 18an anbulatorioaren aurrean egindako elkarretaratzean salatu zuten hori.



Herritarrak LOOPAk deitutako elkarretaratze batean. TXINTXARRI

Gardentasun eskaera eta gutunak

Egoera hori Osakidetzako nagusien "opakotasun bete-betean" eta "herritarrei azalpenik eman gabe" gertatzen ari dela ere arbuiatu du LOOPAk. Hori horrela, plataformak argitu du "gardentasun eta informazio falta horren aurrean, bi gutun erregistratu zituela joan den irailaren 16an. Horietako bat Osasun Zentroko erregistroan sartu du, bertako zuzendariarekin bilera eskatu eta anbulategiko egoeraz eta plangintzaz herritarrek eskubidea duten eta merezi duten informazioa eskatzeko. Beste gutuna, berriz, udal erregistroan aurkeztu du, bere momentuan udalbatzar batean lasarteoriatarren osasun eskubideen defentsan onartutako akordioa gogorarazteko; akordio hartan alkateari agintzen zitzaion Osakidetzarekin interlokuzio lanak egiteko eta horien berri herritarrei emateko.

Amaitzeko, lasarteoriatarrei adi egoteko deia ere egin die LOOPAk, eta, egoerak hala behartzen badu, kalitatezko osasun publikoaren defentsan antolatuko diren mobilizazioetan parte hartzeko prest egoteko eskatu.

GIZARTEA

Topo berrituak eragina izan du Lasarte-Orian; zerbitzuen maiztasuna, esaterako, handiagoa da

Txintxarri
Euskotrenek eta Euskol Trenbide Sareak Topoaren berritze lanak amaitu dituzte eta hilaren 21az geroztik, Donostikoa hiriburuan egin den pasabide berria trenetara irekita dago. Horren bitartez, zerbitzuen maiztasuna handiagoa da hainbat puntuetan eta gure herrian, Lasarte-Orian ere izan du eragina.

Herriko geltokiko zerbitzu guztiek ordutegia aldatuko dute; orain arteko orduak baino bost minutu geroago aterako dira trenak.

Eta Lasarte-Oria eta Irun arteko zein Lasarte-Oria era Hendaia arteko zerbitzuen maiztasuna handituko da asteburuetan.

Lehen tren linearen kasuan, astean zeharreko maiztasuna asteburuetan ere mantenduko da. Hau da, hamabost minuturo trenak izango dira. Eta bigarrenari dagokionez, aldiz, larunbatetik iganderako trenak 30 minuturo izango dira.



Jaiotza erakusleihoan ikusgai. TXINTXARRI

KULTURA

33. Jaiotzen Lehiaketa iragarri du Danok Kide Guraso Elkarteak

Abenduaren 17an eta 18an aurkeztu beharko dituzte lanak interesdunek eta sari banaketa abenduaren 26an izango da

Txintxarri
Danok Kide Guraso Elkarteak 2026ko Gabonetako 33. Jaiotzen Lehiaketa antolatu du. Egitasmo horretan banaka edo taldeka parte har dezakete, eta partaide bakoitzak ezin izango du lan bat baino gehiago aurkeztu. Lanak abenduaren 17an eta 18an jasoko dira, eta horien guztien sari banaketa ekitaldia abenduaren 26an izango da Antonio Merceroko aretoan; ondoren, aurkeztutako jaiotzak Muebles Azpeitian eta San Pedro Parrokian egongo dira ikusgai.

Parte hartze mailak eta sariak

Lehiaketan lau kategoria izango dira parte hartzaileen adinaren arabera, eta honako sariak banatuko dituzte horietako bakoitzean:

· A kategoria (6 urtetik 9 urtera): lehen saria 70 eurokoa eta diploma izango da, eta bigarren saria 50 eurokoa.
· B kategoria (10 urtetik 13 urtera): lehen saria 80 eurokoa eta diploma izango da, eta bigarren saria 60 eurokoa.
· C kategoria (14 urtetik 17 urtera): lehen saria 100 eurokoa eta diploma izango da, eta bigarren saria 70 eurokoa.
· D kategoria (18 urtetik gorakoentzat): lehen saria 130 eurokoa eta diploma izango da, eta bigarren saria 100 eurokoa.

Horrez gain, lehiaketan aurkeztu eta onartutako lan guztiei 15 euroko saria emango zaie. Halaber, antolatzaileek jakinarazi dute epaimahaiak sariak hutsik utzi ditzakeela haien maila egokia ez dela irizten badu.

Lehiaketaren arauak eta entregatzeko epea

Aurkeztuko beharreko jaiotzek gehienez 80 x 60 zentimetroko neurria izan behar dute, oinarri sendo batekin eta irudiak horra ondo lotuta egon behar dute; hori hala ezean, antolatzaileek ez dituzte onartuko. Gainera, aurreko urteetan aurkeztutako jaiotzak ez dira lehiaketa honetarako hautagai izango. Banaka edo taldeka parte har daiteke, baina parte hartzaile bakoitzak (banaka edo taldeka) ezin izango du lan bat baino gehiago aurkeztu. Bestalde, partaide bakoitzari gutun azal itxi bat gehitu behar zaio eta honako datuak bildu behar ditu horrek. Kanpoaldean parte hartzailearen adina idatzi behar da, eta barruan, berriz, izena eta telefono zenbakia. Jaiotzak 2026ko abenduaren 17an, ostegunarekin, eta abenduaren 18an, ostiralarekin entregatu beharko dira Danok Kide elkartearen egoitzan, hau da, Blas de Lezo Kalea, 11-13 beheko solairuan, 17:00etatik 19:00etara.

Sari banaketa eta erakusketa

Sari banaketa ekitaldia 2026ko abenduaren 26an, larunbatarekin aurrera eramango dute. Eguerdian izango da eta Antonio Mercero aretoan.

Ostean, saritutako jaiotzak Muebles Azpeitian jarriko dituzte ikusgai, Blas de Lezo kaleko 1. zenbakian. Gainerako lanak, berriz, San Pedro Parrokian, urtarrilaren 7ra arte.

EKONOMIA

Ostalariek prestatutako bidea pintxoz pintxo egin dute herritarrek

Harrera bikaina izan dute Arima, Arkupe, Buenetxea, Herriko Etxea, Lasarte, Oria Txiki eta Usoak establezimenduetako sukaldariek kozinatutako jakiek. Abenduan jakinaraziko du Aterpeak sari profesionala eta populara nortzuk irabazi dituzten



Arima jatetxea. TXINTXARRI



Arkupe taberna. TXINTXARRI











Ezker-eskuin, bost establezimendu hauetako sukaldariak edota jabeak: Buenetxea, Herriko Etxea eta Lasarte, Oria Txiki zein Usoak tabernak. Pintxoak pozarren erakutsi zituzten guztiek. TXINTXARRI

Lierni Apaolaza Urdanpileta

Orotariko ibilbideak egin ditzakete pasieran aritzea gustatzen zaienei. Xacobeo-ko bidea, kostaldetik eta mendialdetik. Urak markatutakoa Baztanetik barrena. Lasarte-Orian, aldiz, pintxoz osatutako martxa burutu dezakete Aterpea Elkarteari esker, urtean bitan, gutxienez. Uztail amaiera aldera Santa Ana eta San Joakin egunaren bueltakoa eginda, Pintxo Bidea deitzen diotenekoa falta zen. Bada, hilaren 20tik 22ra aurrera eraman zuten hamabigarren edizioa. Eragileko bazkide diren zazpi ostalaritza establezimenduk parte hartu dute aurten: Arima, Arkupe, Buenetxea, Herriko Etxea, Lasarte, Oria Txiki eta Usoak. Den-denek mokadu goxoak prestatu zituzten eta tantaka-tantaka horiek dastatzera joan ziren bezeroen esku jarri zituzten. Askotariko osagaiak erabili zituzten horretarako, hala nola kalabaza, arrautzak, masailak, edota perretxikoak.

Pintxo bana probatu ostean, 1etik 5era baloratzeko aukera izan zuten herritarrek, jaki bakoitzarekin emandako puntuazio txartelaren bidez. Horren harira, elkarrizketa biziak eman ziren norberaren "faboritoaren" inguruan. Tarte batez, kritikari gastronomikoen plantak egin zituzten lasarteoriatarrek. Datozen asteetan erosketa bonuak zozkatuko ditu Aterpeak, ekimen horrek iraun bitartean iritzia eman zuten guztien artean. Txartel horiek guztiak batuta, 500 eurokoa da balioa (200 euroko bat eta 100 euroko hiru). Sari horren bitartez herriko dendetan kontsumitzea bultzatu nahi dute.

Sari profesionalaren irabazlea Fernando Alonso Carabel sukaldariak erabakiko du. Bere esperientzian eta irizpide gastronomikoetan oinarrituta, parte hartu duten ostalarien pintxoak baloratu eta onena hautatuko du. Lan ibilbide zabala du adituak: *Pesadilla en la Cocina* telebista saioan parte hartu zuen, Rational Caceres 2014 saria irabazi zuen eta sukaldaritza sortzaileko unibertsitate irakasle ere izan da. Hilaren 20tik 22ra arte saldu zituzten elaborazioak ikusita, deliberatzeko lana ez da oso samurra izango eta behin baino gehiagotan hausnartu beharko du.

Ikusteke dago nortzuk hartuko duten Namie Sushi eta Oria Txiki establezimenduen lekukoa. Sari profesionala eta herritarrena horiek irabazi zituzten iaz, hurrenez hurren. Zirkuitu ibilbideko 14. zenbakian lan egiten duten lantaldeko kideek saria errepika dezakete, aurten ere parte hartu baitute.

GIZARTEA

Anekdota ederrak eta janari goxoa

Lasartearra elkartearen klubean futbolean aritutako hogei lagun elkartu ziren Erribera kaleko egoitzan hilaren 21ean, bapo bazkaldu bitartean garai horietako anekdotak gogoratzeko. Antonio Fernandez Cepeda eta Joxin Olasagastik menu goxoa kozinatu zuten. Egun "oso polita" izan zen.



ISAAC FARRE RICO

EUSKARA

AROA marko estrategiko berria aurkeztuko dute

Lasarte-Oriako Udaleko Euskara Zerbitzuak jakinarazi du Aztiker enpresako kideek datorren asteko ostegunean (hilak 3) aurkeztuko dutela AROA marko estrategiko berria jendaurrean, Antonio Mercero aretoan, 18:00etan. Euskara indarberritzeko eta euskal hiztunak ahalduntzeko bide orria ezartzen du plan horrek.

EUSKARA

Euskarari Puzka kanpainako saskiak banatuko dituzte

Errigora egitasmoaren herriko boluntario taldeak eskerrak eman dizkie Euskarari Puzka kanpainan parte hartu duten bizilagunei: "Zuei esker, aurtengoan ere, Nafarroa hegoaldeko euskalgintzari zein elikadura burujabetzari bultzada indartsua eman diogu", adierazi dute. Saskiak abenduaren 1ean banatuko dituzte, Ttakunenean, 17:00etatik 20:00etara.

GIZARTEA

Su artean kozinatu dituzte jaki goxoak eta elkar hobe ezagutzeko harremana

Kultura eta jatorri anitzetako dozenaka herritar elkartu ditu Bizi-Lagunak elkartea antolatutako aurreneko talde afariak. Haurrek zein helduek elkarren arteko loturak sendotu dituzte ekitaldian

Lierni Apaolaza Urdanpileta

Semblante Andaluzera ailegatu orduko, usain goxoa zerion egoitzari. Ez da ezohikoa izaten, ederki kozinatzen baitute elkarteko kideek. Hilaren 19ko topaketa, ordea, berezia izan zen: Bizi-Lagunak elkarteak antolatutako lehen afaria. Menuan, Nikaraguako takoak eta Marokoko oilasko izterrak saltsan olibekin.

Pertsona ugari ziren sukaldean. Belarria fin izanez gero, askotariko hizkuntzak entzun zitezkeen: euskara, gaztelania, ingelesa eta arabiera. Kozinatu bitartean, giro bikaina.

Gastronomia aparteko tresna izan daiteke elkar ezagutzeko eta besteengandik ikasteko. Hortaz oharturik, sukaldaritza tailerra egin zuten. Horretarako, plater bakoitzaren sukaldariek errezeta esplikatu zieten bertan zirenei. Tentuz entzun zituzten azalpenak, eta galdera asko egitera ere ausartu ziren.

Helduek kozinatu ahala, umeentzako ludoteka prestatu zuten Iria Carro eta Hugo Amil begiraleek. Ederki aritu ziren umeak euren artean jolasean. Gogotik gozatu zuten geroko afari-merienda ere. Kozinatutako jakiak dastatu zituzten eta baita Joxe Mari Agirretxe *Porrotx*-ek egindako patata tortillak. Bapo janda, berriro ekin zioten jolasteari.

Jolasak jolas, pixkanaka-pixkanaka ailegatu ziren otorduko mahaikideak. Guztira 59 lagunek egin zuten bat hitzorduarekin. Mahaikide bakoitzak, gainera, afariko platerren errezeta bana jaso zituen.

Helduak ere, jolasean

Menua prest zutelarik, bertaratutakoak ezezagunen alboan aftzera animatu zituzten anfitrioiek, herrikideak ezagutzeko asmoz. Horrekin batera, jakinarazi zieten mahaikide bakoitzak eginkizun bat izango zuela. Harrera beroa izan zuen dinamika horrek, helduei ere jolasteko aukera eman baitzien, nolabait.

Afariaren aurretik, hitz batzuk esan zituzten Bizi-Lagunakeko kideek. Eskerrak eman zizkieten herrikideei topaketari egindako harrera beroagatik. Ondina-k, bere aldetik, taldearen jatorriaz hitz egin zuen. Haren esanetan, Lasarte-Oriako kulturartekotasuna ardatz, askotariko kulturak elkar ezagutzeko espazio bat sortzeko nahietik sortu dute eragilea. Malaak-ek, berriz, multzoaren xedea gogorazi zuen. Horrelako topaketak errepikatzeko gura ere adierazi zuen.

Jann bitartean hiru abesti kantatu zituzten. Hasiera emateko, *Goazen denok batera* intonatu zuten. Bigarren platerari hagina sartu aurretik, *Epo i tai tai ye*, eta amaieran, *Txoria txori*. Eli Gallok akordeoia jo zuen, eta azkenengo piezarako, Semblante Rocieroko bi kide izan zituen bidelagun.

Tripak beteta eta bihotzak bero zituztelarik joan ziren etxera datorren, afariaren dataren esperoan.



Elaborazio bat erakusten. TXINTXARRI



Sukaldaritza tailerrean emandako azalpenak adi jarraitu zituzten. TXINTXARRI



Pertsona ugariren artean prestatu zuten topaketako afari goxoa. Elkarri lagundu zioten uneoro. TXINTXARRI



Haurrek gustura jan zituzten patata tortilla eta bestelako jakiak. TXINTXARRI



Jostatzen, gustura. TXINTXARRI



Eli Gallo, akordeoia jotzen. TXINTXARRI



Kantatu bitartean, erritmoa jarraitzeko txaloak ere jo zituzten. TXINTXARRI

GIZARTEA

Ibilgailu klasikoekiko zaletasuna zahartu ez dela erakutsi dute bigarren topaketan

Gidariek autoz eta motorrez bete dituzte Andatza enparantza eta inguruak

Lierni Apaolaza Urdanpileta

Euri tanten antzera ailegatu ziren auto klasikoak goiz-goizetik Andatza plazara: pixkanaka-pixkanaka. Plazarako sarbidea hartu, eta kioskoaren aurrean egin zuten geldialdia argazkia ateratzeko. Segidan, antolatzaileek egokitutako aparkalekuetan kokatu ziren. Guztira 80 bat kotxek parte hartu zuten. Horrela bete zen Sasoetako enparantza orotariko automobilez; kotxez, furgonetez eta motorrez, hain zuzen. Goiztiarrek, bien bitartean, gosariaz gozatu zuten.

Udazkeneko egun askotan ohi den bezala, euria hasi eta atertu ibili zen etengabe. Dena den, lasarteoriatar mordoa bildu zen eguerdi partean autoak gertutik ikusteko gogoz: haur, heldu, familia edota kuadrilla.

Nolabaiteko eraskuleiho handiaz gain, Scalextric-en leihatzeko gune bat antolatu zuten, plaza berean. Ume mordoa animatu zen garai bateko jokoarekin norgehiagoka finak egitera. Euren gurasoek ere biziki disfrutatu zuten nostalgiatik asko izan zuen ariketarekin.

Kasik bazkalorduarekin batera, ibilaldiari ekin zioten. Ibilgailuetan igo eta herria zeharkatu zuten. Andatza tabernan bermuta hartu eta bazkaltzera abiatu ziren, alboko Udaberri elkartera. Arratsalderaino luzatu zen festa.



Kale Nagusia zeharkatu eta Oriarantz joan ziren gidariak. TXINTXARRI



Scalextric jostailuzko autoek ez zuten atsedenik izan goiz osoan. TXINTXARRI



Herritarrek ez zuten ibilgailu klasikoak gertutik ikusteko aukera galdu. TXINTXARRI

KULTURA

Zaindari berberaren eguna bakoitzak bere erara ospatu dute musika eragileek

San Pedro parrokia zein herriko kaleak girotu dituzte, Santa Zezilia omentzeko

Lierni Apaolaza Urdanpileta

Musikarien zaindariaren eguna, Santa Zeziliarena, aproposa izaten da urteroko ohiturak berritzeko edota inprobisazioari atea ireki eta erdigunean barrena emanaldiak egiteko. Aurrenekoa burutu zuen taldeetako bat izan zen Alboka Abesbatza: hilaren 22a igandea izan zela baliatuta, San Pedro parrokiako eguerdiko elizkizuna girotu zuten, beti bezain fin kantatuta. Juan Luis Murua apaizak gidatutako meza amaitu zenean elkarrekin bazkaltzera joan ziren eragileko partaideak eta baita euren proiektua babesten duten bazkideak ere.

Egun horretan bertan baina arratsaldez astindu zituzten instrumentuak Arranopola eta Oaintxe in deu! txarangetako lagunek. Arrieskalleta elkartean bazkaldu zuten eta hor hartutako indarrak erabili zituzten erdigunea girotzeko. Eguraldi txarra ez zen oztopo izan eta errutinara itzuli bezperako orduak alaitu zizkioten bati baino gehiagori.

Hamaika Doinu taldeko txistulariak, bestalde, ostiralean (hilak 20) irten ziren kalera. Eurak ere Arrieskalleta elkartetik abiatu eta erdigunean barrena geldialdi bat baino gehiago egin zuten. Sorpresa hartu arren, harrera beroa egin zieten musikariei; pare bat orduz jo zuten.



San Pedro parrokiako elizkizuna girotu zuten Albokako kideek. TXINTXARRI



Txistularien taldeko lagunak erdigunean barrena ibili ziren jotzen. TXINTXARRI



Arranopola eta Oaintxe in deu! txarangetako kideek pozarren ekin zioten saioari. TXINTXARRI



Izan direlako gara, eta garelako izango dira. Belaunaldi guztiak, elkarrekin. TXINTXARRI



Koloretako xingolak jartzen. TXINTXARRI



Sardina erreak eta bestelako gutiziak dastatu zituzten bizilagunek. TXINTXARRI

GIZARTEA

Urtaroaren osagai guztiak izan ditu Zabaleta auzoko udazken festak

Koloretako xingolak lotu dituzte memoriaren zuhaitzean, hildakoak oroitzeko

Iñigo Gonzalez Sarobe

Kolorea, memoria, alaitasuna, hunkidura eta auzolana izan zituen hilaren 22ko ospakizunak, baita urteko sasoi honetan ohikoak diren elementu klimatikoak ere: eguzkia, euria, haize freskoa edota hodeiak. Horiek guztiak bertaratu ziren Zabaletara, udazkena ez ezik auzoaren izaera herrikoia balioan jartzera.

Azken urteetan asko hazi den auzoa da Zabaleta. Etorri dira bizilagun asko, herriko beste toki batzuetatik zein beste toki ugaritatik, eta, bizitzaren legeak agintzen duenez, hil egin dira beste asko: izan direlako gara, eta garelako izango dira. Horri horrela, azken urtean zendutakoak gogoratzeko ekitaldiarekin hasi ziren. Porrotx eta Marimotots pailazoek gidatu zuten Basotxo plazako berdegunean memoriaren zuhaitzeranzko kalejira; gaztetxo zein heldu, euren atzetik ilara luzea osatu zuten guztiek.

Duela urtebete landatu zuten zuhaitza eta nabarmen hazi da tarte horretan. Hori bai, udazkena izanik, batere hostorik ez du, denak erori zaizkiolako. Udaberria aurreratu eta adarrak bat-batean loratu izan balira bezala, hildakoak oroitzeko koloretako xingolak lotu zituzten herritarrek, bakoitzak pertsona bat, batzuk edo asko gogoan. Talde argazkia (beno, egiari zor, lau izan ziren: normala, mihia aterata, puzkerrak botata eta eskuak altxatuta) atera aurretik, Bixente Beltranek txistua jo bitartean aurreskua dantzatu zuten Amaia Usandizaga auzotarrak eta etorkizunean Zabaleta bizirik mantenduko duten zenbait gaztetxok. Eta, irudi jendetsuen ostean, bihotzetik kantatutako bertso eder pare bat bota zituen Antton Garinek.

Objektuen bigarren bizitza

Gauza ziurrik bada mundu honetan, hauxe da: gizaki guztiak, salbuespenik gabe, hil egingo gara. Eta zer gertatzen da objektuekin? Horiek ere zendu egiten ote dira? Hala bada, noiz? Erabiltzeari uzten diogunean? Zakarretara botatzen ditugunean? Modu batera edo bestera izanda, hori saihesten saiatu ziren auzo elkartearen lokal parean bigarren eskuko azoka jarri zutenak. Etxean erabili gabe zituztenak ekarri zituzten, diruaren truke edo doan beste batzuek hartu eta liburuei, jostailuei, jantziei... bigarren bizitza emateko. Udazkeneko euriak eta haizeak ekimena bertan behera utzi beharraren mehatxua egin bazuten ere, berriz atera zen eguzkia eta ederra izan zen postu arteko giroa. Horretan, nola ez, Porrotxen elkarrizketek eta txantxek lagundu zuten.

Bitartean, sukaldean jo eta su ari ziren Zabaleta Auzolaneko kideak, hamaiketako goxoa prestatzen. Eugenik egindako salda eta urari zaporea emateko erabilitako haragi zein oilo egosiak, txorizoa, patata tortillak, gazta, eta udazken festan inoiz faltatzen ez diren sardina erreak. Borondatearen truke bapo jan eta edan zuten jakiz eta edariz betetako mahaien bueltara etorri zirenek.

Kazetariok frogatu behar dugunez kontatzen duguna egia dela eta ez dugula asmatu, auzotarrek prestatutako guztia dastatu genuen. Eta bai, mahaietara ekarri zuten guztia ezin goxoagoa zegoen. Bejondeizuela, zabaletarrok!

KULTURA

Bapo jan eta kantatu dute dozenaka gaztek Xirimiri elkartean





LOGA GAZTE ASANBLADA

Hilaren 20tik 22ra arteko asteburua ezin hobeto hasi zuten LOGA Lasarte-Oriako Gazte Asanbladak antolatu zuen kantu afarira joandako dozenaka herritarrek. Sukaldariek kozinatutako menu goxoa jan zuten, sagardotegi denboraldian ohikoa izaten denaren antzekoa: bakailao tortilla, entsalada, txekor saiheskia eta postrea. Ardoarekin eta sagardoarekin ezkontzu zituzten gutizia horiek, azken edariaren kasuan, txotx eta guzti eginda. Afalostea euskal kantutegiko abesti ospetsu askorekin girotu zuten, hala nola Anje Duhalderen kantuekin. Gogotik gozatu zuten hitzorduaz.

TXIRRINDULARITZA

Xabat Martin herritarra txapeldun izan da pistako Gipuzkoako txapelketan

Danena taldeko txirrindularia lehiatutako lau probetan lehen sailkatu da

Txintxarri

Gipuzkoako zein Bizkaiko txirrindulari onenak bildu ziren hilaren 21ean Donostiako Antonio Elorza belodromoan; bi lurraldeetako Omnium txapelketak zeuden jokoan. Gipuzkoa lehian hiru herritar izan ziren pistan borrokan: junior mailan, Danenako Xabat Martin eta Luken Garmendia eta kadete mailan, Andoaingo Txirrindulari Eskolako kide Dario Gomez. Lehenak jardunaldi ederra egin zuen eta Gipuzkoako txapela jantzi zuen.

Lau probari egin zioten aurre parte hartzaileek: *scratch*, *tempo*, kanporaketa eta puntuazioa. Lauetan nagusi izan zen Martin herritarra.

Azken proban, gainera, nagusiki jardun behar izan zen Danena taldeko kidea; Oriako eta Durangaldeko Bizikleta taldeetako aurkariek itzulia galarazi nahi izan bazuten ere Lasarte-Oriako kidea tinko mantendu zen lehen postuan eta esprintetan beti izan zen aurrean. Horri esker, 36 gehiago gehitu zizkion eguneko poltsari eta 156 punturekin Gipuzkoako txapelketa eskuratu zuen gazteak.



Xabat Martin, erdian, Gipuzkoako txapelketako podiumean. MA MARTIN

Maila berean izan zen lehian Luken Garmendia herritarra ere. Garmendiak, guztira, 53 puntu batu zituen eta 10. postuan sailkatu zen. Eta kadete mailan, aldiz, Dario Gomezek 9. postua eskuratu zuen 68 puntu lortuta.

Azken maila horretako gazteek ezin izan zuten lehia amaitu. Eroriko bat egon zen emakumezkoen puntuazio proban eta kirolari bat artatu behar izan zuten.

Txapelketaren ostean, txirrindulariek ez diote pista garaiari agur esan, ordea. Hilaren 28an, lurraldeko pistako egutegiari amaiera emango dion Gipuzkoako Sari Nagusia lehiatuko dute eta hortik astebetera, abenduaren 5ean eta 6an, Euskadiko Sari Nagusia ere izango da Donostiako belodromoan.

XAKEA

Etxeberria, Vegas eta Martinez, Gipuzkoako txapeldun xakean

Txintxarri

Taula Xake Klubak Gipuzkoako hiru txapeldun berri ditu: Daniel Vegas, Carlos Martinez eta Iñaki Etxeberria. Super beterano mailatik kadete mailara sei ordezkari izan dira Lasarte-Oriako klubaren izenean urritik azarora Gipuzkoako Banakako txapelketan parte hartu dutenak.

Egoitza ezberdinetan jokatu dituzte herriko ordezkariek euren partidak. Astigarragan zein Errenterian jokatutako lehiaketetan lortu dute Taula Xake Klubeko kideek lehen postuetan egotea.

Astigarragan bi garaipen eskuratu zituzten Lasarte-Oriako xake jokalariek. Bigarren mailan, Daniel Vegasek azken jardunaldian parra eginez lortu zuen garaikurra. Hirugarren mailan, aldiz, Carlos Martinez xake-matea eginez izan zen garailea. Gipuzkoako txapeldun tituluaz gain, bi gazteek maila igoera eskuratu dute.

64 urtetik gorako Super beterano eta kadete mailan ere podiumean izan ziren herritarrak. Iñaki Etxeberriak 2025 urtean ihesi egin zion Super beteranoen txapelketa berriro bereganatu du. Kadete mailan, aldiz, Erlantz Sanchez gazteak hirugarren postuan amaitu du lehia.



Martinez eta Vegas. TAULA XAKE KLUBA

Horiez gain, klubeko kide Dani Barrosek absolutu mailan parte hartu du eta seigarren postuan sailkatu da eta Alejandro Sanchezek, hirugarren mailan, 13. postua lortu du.

Taldeka lehian

2027ko urtarrilean hasiko den Taldekako ligari zain taldekako lehiak ere jokatu dituzte Taulako kideek. Irailean, esate baterako, Gipuzkoako Taldekako Blitz txapelketa izan zen Irunen eta herriko klubak bi talde aurkeztu zituen. Taula A seigarren sailkatu zen eta B taldea, aldiz, hamargarren izan zen.

ASTEBURUKO KIROL HITZORDUAK

FUTBOLA

LARUNBATA 28

GIZONEZKOEN GORENGO MAILA
- **Ostadar SKT - Deusto FC**
  17.30. Michelin kirol gunean.

EMAKUMEZKOEN GORENGO MAILA
- **Ostadar SKT - Intxurre KKE**
  15.30. Michelin kirol gunean.

ERREGIONALEN I. MAILA
- **Euskalduna A SD. B - Ostadar SKT**
  18.00. Ubitarte, Andoainen.

JUBENILEN OHOREZKO MAILA
- **Ostadar SKT - Arrupe Chaminade**
  11.20. Michelin kirol gunean.
- **Ilintxa SD - Texas Lasartearra CF**
  16.30. Irene Paredes, Legazpian.

JUBENILEN 1. MAILA
- **Amaikak Bat - Ostadar SKT**
  12.00. Errotazar, Deban.

IGANDEA 29

KADETEEN OHOREZKO MAILA
- **Kostkas CD - Ostadar SKT**
  16.15. Matigoxotegi, Donostian.

ARETO FUTBOLA

OSTIRALA 27

OHOREZKO ERREGIONAL MAILA
- **Eguzki Arkupe Rehab.- Euskalduna SD**
  20.50. M. Chourraut kiroldegian.

LARUNBATA 28

NAZIONAL LIGA, OHOREZKO J.
- **Lardero AD - Eguzki CORPAChef**
  19.30. Lardero, Errioxan.

GAZTEEN MAILA, JUBENILAK
- **Janrablue - Eguzki Avenida**
  11.00. Eskolapioak ik., Tolosan.

IGANDEA 29

ERREGIONALEN I. MAILA
- **Eguzki ISU - Irun Futsal**
  11.00. M. Chourraut kiroldegian.

KADETEEN MAILA
- **Eguzki Urarte suk. - Laskorain KE**
  09.30. Michelin kirol gunean.
- **Eguzki Escalerilla t. - Antiguoko**
  11.00. Michelin kirol gunean.

BOLEIBOLA

LARUNBATA 28

GIP. KOPA, INFANTIL PART.
- **Aldapeta M. Laranja- Ostadar SKT**
  09.00. Txomin Madinabeitia, Donostian.

IGANDEA 29

GIP. KOPA, JUBENILA
- **Goierri KE - Ostadar SKT**
  11.30. Aldiri kirol., Urretxun.

SASKIBALOIA

OSTIRALA 27

SENIOR 2. MAILA
- **Eibar Saskibaloia - Ostadar SKT**
  20.15. Ipurua, Eibarren.

LARUNBATA 28

SENIOR 3. MAILA
- **Ostadar SKT - Añorga KKE**
  16.00. M. Chourraut kiroldegian.

EUSKAL LIGA, JUNIOR
- **Ostadar Alvite - Fundibide ISB**
  18.00. M. Chourraut kiroldegian.

KADETE ERREND. URREA
- **Ostadar SKT - Zast Attack**
  14.00. M. Chourraut kiroldegian.

KADETE PARTAIDETZA
- **Ostadar Urdina - Plastigaur Ganbara**
  09.30. M. Chourraut kiroldegian.
- **Ostadar Beltza - Bera Bera Ulia**
  09.30. M. Chourraut kiroldegian.

PILOTA

LARUNBATA 28

ESKUZ BANAKA, J. 2. MAILA
- **Intza (Elola) - Telletxea**
  10.30. 3. partida. Michelin pil.

ESKUZ, BANAKA, K. 1. MAILA
- **Intza KE (Atorrasagasti) - Intza KE**
  10.30. 2. partida. Michelin pil.

ESKUZ BANAKA, K 2. MAILA
- **Intza KE (Maiz) - Oiarpe**
  10.30. 1. partida. Michelin pil.

IGANDEA 29

NEGUA, ESKUZ BINAKA, N. MAILA
- **Oteiza-Intza**
  10.30. 2. partida.Gurea, Azkoitian.

TRINKETA, BANAKA, N. 2. MAILA
- **Intza KE (Olazabal) - Behar Zana**
  10.30. 2. partida. Ametsa, Iruran.

IGERIKETA

LARUNBATA 28

ALEBIN LIGA
- **Buruntzaldea IKTko alebinek Ligako hirugarren jardunaldia lehiatuko dute.**
  17.30. Allurralde kirol., Andoainen.

BENJAMINEN JAIALDIA
- **Buruntzaldea IKTko benjaminek euren mailako bigarren jaialdian parte hartuko dute.**
  15.30. Allurralde kirol., Andoainen.

ERRUGBIA

LARUNBATA 28

OHOREZKO B MAILA
- **Donostia Rugby - Betsaide Elorri RT**
  16.00. Anoeta miniestadioa, Donostian.

EUSKAL LIGA 1. MAILA
- **Getxo Etorkizuna - Zarautz/Beltzak**
  15.00. Getxo, Bizkaian.

18 URTEZ AZPIKOAK
- **Itsasmendi - Uribealdea**
  12.30. Unbe, Eibarren.

16 URTEZ AZPIKOAK
- **Gezalaga Okelan Zarautz Beltzak Eibar XII - Hernani CR**
  10.30. Unbe, Eibarren.

TXIRRINDULARITZA

LARUNBATA 28

GIPUZKOAKO SARIA
- **Luken Garmendia (Danena KE), Dario Gomez (Andoaingo Txirrindularitza Eskola) eta Xabat Martin (Danena KE) txirrindulariek Gipuzkoako Pista Saria jokatuko dute.**
  Antonio Elorza Belodromoa, Donostian.

ATLETISMOA

Alaia Romero herritarra, 16 urtez azpiko Euskadiko txapeldun Realarekin

Bi probatan parte hartu du herritarrak eta bietan garaipena eskuratu du

Txintxarri

18-20 urtez zein 16 urtez azpiko Euskadiko Kluben Txapelketa lehiatu zen hilaren 14an, Durangon eta Alaia Romero herritarra podiumeko gorenera igo zen.

16 urtez azpiko Euskadiko zortzi talderik onenak batu ziren: Atletico Getxo, Atletico San Sebastian, Bidezabal Durango, CA Barakaldo, CA Sendoa, Real Sociedad, Super Amara BAT eta Tolosa CF. Eta horietako batean, Realean, Alaia Romero herritarra izan zen lehian.

Talde txuri-urdinak eraman zuen garaikurra 69 puntu lortuz eta Lasarte-Oriako gazteak bere harritxoa jarri zuen; bi probetan parte hartu zuen (100 m. lasterketa eta 4x300 erreleboa) eta bietan garaile izan zen. 100 metroko proban bere marka onenetik sei ehunekoetara zen herritarra, 12,66. Erreleboan, aldiz, Aixa Carrera, Isabel Irastorza eta Maddi Zubeldia taldekideekin batera, 02.57,76 marka lortu zuen klubaren markarik onena onduz.



Podiumeko gorenean izan zen Reala; Alaia Romero, behean, eskuineko lehena da. M.U.

Txapelaz gain, datorren urteko txapelketarako sailkapen zuzena ere eskuratu du taldeak.

Maratoian eta krosean

Herriko korrikalariek ere ez dute atsedenik. Hilaren 22an, Donostiako Zurich Maratoia lehiatu zen. Hainbat herritarrek parte hartu zuten eta horien artean azkarrena Jon Huici izan zen; 02.38.28 egin zituen helmugan.

Horrekin batera 10K proba ere lehiatu zen eta herriko ordezkarietan lehena LOTMEko Xabier Aizpurua (32.40) izan zen.

Egun horretan bertan, Mari Carmen Olaso herritarrak Basauriko Herri Krosean lasterka egin zuen eta F-50 master mailako brontzezko postua eskuratu zuen; bigarren postutik segungo gutxira geratu zen.

Proba honetaz gain, Olaso azken asteetan Avilako Maratoi erdian eta master mailako Euskadiko kros txapelketan ere izan da lehian. Lehenean -59 mailako bigarren postua eskuratu zuen (01.48.54) eta krosean, aldiz, laugarren amaitu zuen Laudioko proba, 26.01.

JUDO

LOKEko judokek lau domina eskuratu dituzte Amurrio Hiriko txapelketan

Hamar kadete izan dira lehian Amurrion (Araba). Juniorrek, hilaren 29an, Gipuzkoako txapelketa jokatuko dute

Txintxarri

Lasarte-Oria Kirol Elkarteko (LOKE) Judo atala lehiaketaz lehiaketa dabil azaroan. Amurrion (Araba) eta Gijonen (Asturias) izan dira lehian azken asteetan eta lehenean lau domina jantzi zituzten taldeko kideek.

LOKEko hamar kirolari izan ziren tatamian hilaren 21ean, kadete mailako Amurrio Hiriko txapelketan.

Borroka politak ikusi ahal izan ziren eta Lasarte-Oriako taldeko kirolariak gustora izan ziren lehian. Lau brontzezko domina ekarri zituzten, gainera, herrira: Cristhel Vallejo (57 kilo azpi), Iraia Diez (63 kilo azpi), Ariana Mendoza (70 kilo azpi) eta Alba Padrones (70 kilo baino gehiago).

Bi aste lehenago, hilaren 8an, Gijongo Junior Superkopan izan ziren Aitor Santos eta Iker Izquierdo. Ongi jardun ziren herriko judokak eta esperientzia hartzeko balio izan ziela azpimarratu du Gorka Aristegi entrenatzaileak.

Maila horretako kideek, asteburu honetan, hitzordu garrantzitsua izango dute Urnietan: Gipuzkoako txapelketa.



Ezker-eskuin: Vallejo, Mendoza, Padrones eta Diez, Amurrioko garaikurrekin. LOKE JUDO

ERRUGBIA

Kanpanzar Arrasatek ez dio aukerarik eman Euskal Ligako lehen taldeari

Hasieratik aurre hartu du aurkariak markagailuan eta beltzak, saiatu arren, ezin izan diote itzulia eman neurketari

Txintxarri

Euskal Ligako 1. mailako Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak RT-Kanpanzar Arrasate RT partidaz gozatu ahal izan zuten herriko errugby zaletuek hilaren 21ean, Atsobakar kirol gunean.

Beltzak zigor kolpe batekin aurreratu ziren arren, Arrasatek entsegu eta gauzatzearekin itzulia eman zioten markagailuari 3-12. Etxekoek zigor entsegu bati esker lortu zuten errenta murriztea, 10-12. Ederki borrokatu zuten bi taldeek metroak irabazi eta puntuak eskuratzeko eta atsedenaldira 10-17 iritsi ziren. Bigarren zatian, lehia mantendu zen eta puntu gutxi lortu zituzten. Aurkariek errenta mantentzen jakin zuten eta 21-27 amaitu zen lehia.

Bestalde, Beltzak RTko kide Lander Zabala, Joanes Arroyo eta Gabriel Gavilan Donostia Rugby Baleazaleak taldearekin izan ziren Ohorezko B Mailako neurketan, Gasteizen. Gaztediren aurkako lehia gogorra izan zen, batez ere, bigarren zatian. Donostiarrek 37-16 zegoen markagailua berdintzea lortu zuten, baina gasteiztarrek eraman zuten garaipena, 40-37.



Partidako touche bat. TXINTXARRI

Espainarekin lehian

Hilaren 21ean, Espainiako selekzioak Nazioen Kopako azken jardunaldia jokatu zuen Samoaren aurka, Malagan (Andaluzia). Hamabostekoan Alex Saleta herritarra izan zen; 22-90 galdu zuten.

IGERIKETA

Buruntzaldea IKTKo gaztetxoak, lehiaz lehia prestakuntzan aurrera

Txintxarri

Buruntzaldea IKTko alebin eta benjamin mailako kideek hitzordu bikoitza izango dute hilaren 21ean, Andoaingo Allurralde kiroldegian.

Taldeko txikienak izango dira lehenak uretara jauzi egiten, 2018 eta 2016 urte artean jaiotako kirolariek, Benjamin Jaialdiko 2. jardunaldiaz gozatuko dute. Besteak beste, 25 m. edo 75 m. bizkar eta estilo bereko hanken 6x25 m. erreleboari egingo diote aurre. Azken hori gainerako talde guztietako igerilariekin nahastuta egingo dute. Horrez gain, 2016 urtean jaiotako gazteek bizkar erako 150 metrotako proba egiteko aukera ere izango dute eta amaitzeko, 4x50 m. libre errelebo mistoa izango da.

Eta aurreko saioa amaitu ostean, alebinen txanda izango da. 2014 eta 2015 urtean jaiotako igerilariek Ligako 3. jardunaldia lehiatuko dute eta Buruntzaldea IKTko bederatzi kidek parte hartuko dute bertan.

Lanaren fruitua

Hilaren 8an, aldiz, igeriketa taldeko gaztetxoak Tolosan izan ziren igerian. Alebinei dagokienez, Ligako bigarren saioa lehiatu zuten. Denboraldia hasi berri egon arren, lanaren fruituak jasotzen hasi dira. Nora Becerrak, Leire Lopezek eta Oier Perezek, 200 m. lau estilo proban lortutako markarekin, Udarako Gipuzkoako Txapelketan parte hartzeko gutxienekoa lortu zuten. "Lanaren bitartez hobekuntzak ikusten ari gara eta garapen handia izan dugu, autonomia eta konfiantza garatuz", adierazi dute taldeko arduradunek.

Benjaminek aldiz urteko lehen saioa izan zuten eta batzuk estreinakoz egin zuten igeri jendaurrean. Prestatzaileek azaldu duten moduan, "urduri samar zeuden guztiak, hala ere, ausardia osoz ekin zieten euren probei".

BOLEIBOLA

Ostadar SKTko boleibol taldeak, Kopako azken jardunaldietan murgilduta

Urdin-beltzen jubenil ekipoak jokatutako partida guztiak irabazi ditu

Txintxarri

Gipuzkoako Kopako hiru norgehiagokari egin zioten aurre Ostadar SKTko Boleibol saileko taldeek, hilaren 21ean, Maialen Chourraut kiroldegian, eta bitan garaipena erdietsi zuten urdin-beltzek.

Jubenil mailako taldeak lehiaketa denboraldi hasiera ederrari jarraipena eman nahi zion Aldapeta Maria Orlegiaren aurka. Kopako neurketarik ez du galdu Ostadarrek eta oraingoan ere ez zuen hutsik egin; 3-0 (25-10, 25-19 eta 26-24) irabazi zuen.

Eskuratutako emaitzei esker, A multzoko lehen postuan dago gazteen taldea eta Kopako azken fasea jokatzeko aukera handiak ditu. Multzoetako lehiaren azken jardunaldian bigarren sailkatua den Goierriren aurka neurtu beharko ditu indarrak.

Ordu batzuk lehenago, infantil partaidetzako A eta B taldeek kantxa partekatu zuten. Mihisearen alde batera Tolobolei A izan zuen aurkari Ostadarreko A ordezkariak eta B-ak, aldiz, Aiztondo Neskide KT; txanponaren bi aldeak bizi izan zituzten.

A ekipoen lehian, Tolosako taldeak aurre hartu zuen bi set



Jubenil mailako taldeak garaipen berria lortu du. TXINTXARRI

irabaziz, 14-25 eta 13-25. Etxekoek ez zuten amore eman, ordea eta hirugarrenean 25-16koa egin zuten. Tamalez laugarren zatian tolosarrek, berriro, jokoa bereganatu eta 10 eta 25eko emaitzarekin garaipena lortu zuten.

Emaitza bera, baina etxekoen aldekoa izan zuen B taldeak; urdin-beltzek 3-1eko (25-7, 24-26, 25-13 eta 25-19) markagailuarekin garaipeneko puntuak eskuratu zituzten.

Lehen garaipena

Euskal Ligako ordezkariek, bestalde, Bilbon (Bizkaia) eta Tolosan izan zituzten hitzorduak.

Tolosatik iritsi zen berririk pozgarriena. 2. mailako taldeak denboraldiko lehen garaipena erdietsi zuen.

Toloboleik aurre hartu zuen lehen setean (25-20), baina herritarrek ongi eman zioten itzulia neurketari eta hurrengo hiru zatietan 16-25, 21-25 eta 23-25 emaitzei esker, neurketa irabazi zuten.

Madre de Dios Deustuko Unibertsitatearen aurka jokatu zuen lehen taldeak. Lehia estua izan zen. Nahiz eta urdin-beltzek lehen seta (20-25) irabazi, bilbotarrak hurrengo bietan nagusi izan ziren (16-25 eta 21-25). Laugarren setean 21-25ekoa lortu zuen Ostadarrek eta bosgarrenean erabaki zen garailea; urdin-beltzak 12-15 gailendu ziren.

FUTBOLA

Ostadar SKTko Erregional I. Mailako taldeak, garaipena



TXINTXARRI

Bost jardunaldi behar izan ditu Ostadar SKTko Erregional I. Mailako taldeak garaipeneko hiru puntuak berriro lortzeko. Amara Berri B taldearen bisita jaso zuen ligako 10. jardunaldian, Michelin kirol gunean eta etxekoek ederki egin zioten aurre aurkariari; 6-2 irabazi zuen.

Urdin-beltzak indartsu atera ziren zelaira. Aukera ugari sortu zituzten arren, markagailua irekitzea kosta izan zitzaien; 30. minutuan egin zuen lehen gola. Horren ostean, 3-0 joan ziren atsedenaldira.

Bigarren zatian ere herritarrak ederki borrokatu ziren ate aurrera iristeko eta beste hiru gol egin zuten garaipena lotzeko. Ez ziren bakarrak izan, ordea. Amara Berrik bi gol egin zituen.

ARETO FUTBOLA

Aitor Anabitarte, jokalari onena FEB Kopako final zortzirenetan

Txintxarri

Espainiako kopako final zortzirenak lehiatu ziren hilaren 17tik 19ra. Partida guztien artean, Cultural y Deportiva Leonesa eta Class Basquet Sant Antoni taldeen arteko norgehiagokan izan zen albistea; Aitor Anabitarte herritarra FEBek aukeratutako jardunaldiko bostekoan izan zen eta, gainera, jokalari onena ere izendatu zuen.

Lasarte-Oriako jokalariak 22 puntu, sei errebote eta asistentzia bat egin eta sei falta jaso zituen. Guztira, 31ko balorazioa eman zion FEBk.

Hala ere, ez zen pozgarria izan herritarraren taldearentzat, Leongo taldeak neurketa 79-104 galdu baitzuen eta kopatik kanpo geratu da.

Anabitarte denboraldi ederra egiten ari da Cultural y Deportiva Leonesa taldean. Uztailean bigarren FEB mailako Leongo taldearekin egin zuen bat Lasarte-Oriako hegal-pibotak eta partidaz partida proiektu berri-



Aitor Anabitarte herritarra. FEB

tuan funtsezko pieza bihurtu da.

Maila igoera

Bestetik, Ostadar SKTko Junior Partaidetza taldeak multzoko fasea lehen postua eskuratu du matematikoki. Bi jardunaldi falta diren arren, herriko taldeak maila igoera lortu du eta hurrengo fasean Junior Errendimendu A-2 taldean izango da lehian.

ARETO FUTBOLA

Eguzki ISU Leihoak-ek garaipena eskuratu du azken hiru jardunaldietan

Txintxarri

Eguzki ISU Leihoak-ek garaipenaren bidea hartu du. Erregional I. Mailako taldeak hiru puntuak eskuratu ditu azken hiru jardunaldietan. Azkena hilaren 20an izan zen Sanpedrotarrak taldearen aurka.

Partida hasi bezain pronto sartu zituen lehen bi golak etxeko taldeak. Aurkariak aldea murrizteko 2 eta 1koa egin zuen. Baina etxekoek ez zuten amore emango eta ahaleginak ahalegin, 3 eta 1eko jarri zuten markagailuan. Bi taldeak saiatu ziren aurkariaren atea zulatzen azken momentura arte. Sanpedrotarrakek lortu zuen lehenik helburua eta bigarren gola egin zuen. Gutxi iraungo zien poztasunak pasaitarrei, minutuetara Eguzki ISUk azken emaitza izango zen 4 eta 2koa egin baitzuen.

Lehen postuaren bila

Talde hori-beltza bere multzoko lehen postuagatik borrokan ari da. Lehen postuan dagoen Ausa Zaldibirekin 15 puntura berdinduta dago, baina zaldibiarrek partida bat gutxiago dute jokatua.

Hurrengo jardunaldian, hilaren 29an, 11:00etan, Irun Futsal hartuko du Lasarte-Oriako ordezkariak. Irungo taldea sailkapeneko zortzigarren postuan da eta azken jardunaldian ere garaipena erdietsi du. Eguzki ISU Leihoak hiru puntuak etxean geratzeko borrokatuko da berriro ere.



Eguzki ISUko jokalaria, erasoan. TXINTXARRI

HEZKUNTZA

Munduari begira jarri dira Oriarte Larrekoetxeko ikasleak

Munduko Gatazkak irakasgaiko taldea - Txintxarri

Hankaz gora dago mundua eta edonon gertatzen ari dena ulertu ahal izateko beharrezkoa da ongi informatzea, ikuspuntu kritikoa garatzeko baliabideak eskuratzea eta norberaren iritzia argi azaltzeko gai izatea. Hori guztia (eta gehiago) lantzen ari dira Oriarte Larrekoetxe institutuan ikasten duten 1. Batxilergoko hamalau ikasle, Nora Muñoa Guenaga irakaslearekin batera, Munduko Gatazkak izeneko irakasgaian.

Gaur egun pil-pilean dauden gatazka ugari landu dituzte eta horiek testuinguruan jartzeko atzera ere begiratu dute asteartetan eta ostiraletan egiten dituzten saioetan. Teoria barneratuta, praktikara eraman dute ikasitakoa eta hamasei iritzi artikulu prestatu dituzte, zazpi astetan TXINTXARRI aldizkariaren paperezko orrietan zein *txintxarri.eus* webgunean argitaratzen ari garenak. Ikasturte hasieran gurekin jarri ziren harremanetan lankidetza egitasmo bati ekitea posible zen ala ez aztertzeko, eta, datozen asteetan ikusiko (eta irakurriko) duzuenez, pozarren ari gara.

Laugarren argitalpen honetara ekarri ditugu Jakes Molanok eta Lara Jimenezek prestatutako iritzi artikuluak. Ukraina eta Errusiaren arteko gatazkari eta Euskal Herritik kanpoko pertsonen bizitzari buruzko hausnarketak egin dituzte bi ikasle horiek.



Munduaren egoera, grafikoki. ORIARTE

IRITZI ARTIKULUA

Ukraina eta Errusia, gatazka bat baino gehiago



JAKES MOLANO GIL
ORIARTEKO 1. BATXILERGOKO IKASLEA

Ezer baino lehen, Ukraina eta Errusiaren arteko gatazka hasi zenean, Errusiako presidentea, Vladimir Putin zen. Ukrainakoa, aldiz, Volodimir Zelenski. Gaur egun, biek jarraitzen dute presidente karguan. Era berean, haien arteko gatazka 2022ko otsailaren 24an hasi zen, baina tentsio sakonagoak sortu ziren hamarkada batzuk atzerago. 1945-1991 inguruan, bi herrialdeak, hau da, Ukrania eta Errusia, Sobietar Batasunaren parte ziren. Halaber, 1991. urtean, Sobietar Batasuna desegin zen eta Ukrainia independente bilakatu zen.

Horrez gain, Gerra Hotza ere 1991ean bukatu zen. Edonola ere, Gerra Hotzaren ondorioak gaur egunera arte iraun dute eta gatazkak sortzen dituzte. Lehen esan dudan bezala, Gerra Hotzak 1945-1991 artean iraun zuen. Garai horretan, mundua bi blokeetan banandua zegoen: bloke kapitalistak, Estatu Batuak buru, merkatu ekonomian zegoen eta defendatzen zuen. Bestetik, Sobietar Batasuna buru, bloke komunista zegoen, eta sistema sozialista defendatzen zuen. Sobietar Batasuna desegin zenean, Estatu Batuak munduko potentzia nagusia bihurtu zen. Horrekin batera, NATO Europa ekialderuntz hedatzen zen. Horrek, tentsioak sortu zituen Errusian.

"Diplomazia indartu eta bake akordioak egin beharko lituzkete Ukrainak eta Errusiak"

NATO zer den ulertzeko, honakoa ulertu behar da: 1949an sortutako aliantza militar eta politiko bat da, Mendebaldeko herrialdeek Sobietar Batasunaren eta bloke komunistaren aurrean elkar babesteko sortua. Beraz, ulertzekoa da Errusiak mehatxu handi bat bezala hartzea, NATO bere mugetaraino hedatzen hasi zenean.

Bestalde, Gerra Hotza bukatu zenean, Errusiak kontrol eta eragin handia zuen Ukrainarengan. Aipatu bezala, Errusiak NATO mehatxu gisa ikusten zuen eta Ukraina NATOn sartzeko ideia piztu zen. Horren aurrean Errusiak Ukraina inbaditu zuen, baina, Ukrainak bere etorkizuna eta aliantzak aukeratzeko eskubidean zuenez, Errusiaren aurrean defendatu egin zen.

Gerraren ondorioz, energia iturrien prezioak igo egin ziren eta Europarentzat energiaren prezioak igotzea oso arriskutsua izan daiteke, batez ere, petrolioaren eta gasaren prezioak asko igotzen badira. Horrek eragina izan dezake herritarren eguneroko bizitzan, produktuak eta garraioa garestitu dezakeelako. Kontua da Ukrainak bere produktuak beste herrialdeetara esportatzen dituela, eta gerraren ondorioz esportazio horiek zaildu egin zaizkie. Hori dela medio, Europan elikagaien prezioek ere igo egin dira. Beraz, gatazkak ez dio soilik Ukrainari eragiten, Europako herrialdeei ere bai.

Horrek guztiak bukatu behar luke, horretarako, gauzak hobeto egin behar dira. Adibidez, diplomazia indartu behar litzateke. Bake akordioak egin behar lirateke ere bien artean. Azkenik, nazioarteko erakundeek lagundu behar lukete, batez ere, biztanle zibilei.

Nire ustez, gatazka hau ulertzeko, jakin behar dugu hainbat faktore daudela. Gerra armatu horrek mundu osoari eragiten dio. Bukatzeko, etorkizuna hobetzeko, elkarrizketa hobetu eta, lehen azaldu bezala, diplomazia indartu behar da.

IRITZI ARTIKULUA

Nolakoa da bizitza Euskal Herritik kanpokoentzat?



LARA JIMENEZ MITXELENA
ORIARTEKO 1. BATXILERGOKO IKASLEA

Gaur egungo eztabaida politiko eta geopolitiko nagusietako baten erdigunean dago migrazio politika. Herrialde askok deskolonizazio prozesuaren ostean, independentzia politikoa lortu arren, dependentzia ekonomiko handia izaten jarraitzen dute. Horren ondorioz, Latinoamerikako eta Afrikako herrialde askok, adibidez, ez daude ondo ekonomikoki, ondorioz, munduko potentzia nagusietara migratzen dute, bizimodu hobe baten bila.

Latinoamerikar batzuk Estatu Batuetara migratzen dute, lan eta bizi baldintza hobeak izateko. Edozein modutan ere, Donald Trump presidente gisa egonda, zaila izango da migranteek bizi baldintza onak izatea.

Horren adibidea da Yasmani Moreno de Armas-en kasua. Yasmani Kuban jaio zen eta Estatu Batuetara migratu zuen, lan baldintza hobeak lortzeko. Lau urtez egon da Floridan, eta orain Afrika Erdiko Errepublikan bizi da. Afrikako herrialdeetara bidaltzea estrategia politiko eta legal baten ondorio da. Estrategia hori, batez ere, Estatu Batuetako gobernuak ezarri du. Hau ez da kasu bakarra, geroz eta immigrante gehiago bidaltzen dituzte Afrikara.

"Iraganean lortutako eskubide batzuk galdu egin ditugu eta gatazkak errepikatzen ari dira"

Estatu Batuetako enpresa askok deslokalizazioa erabiltzen dute enpresa batek bere lantegiak edo bulegoak bere herrialdetik beste herrialde batzuetara, kasu honetan Afrikara, gauzak merkeago egiteko. Horrela deslokalizatutako herrialdeetara bidaltzen dituzte Estatu Batuetara iristen diren inmigranteak.

Yasmani Morenoren kasuarekin jarraituz, aipatu beharra dago teknologia berriek ere asko eragin dutela gaur egungo munduan. Gaur egun, kontrol tresna nagusia teknologia berriak dira: non gauden, zer egiten dugun eta norekin gauden kontrolatu eta ikusi dezakete. Horregatik, bazekiten non eta norekin bizi zen Yasmani.

Argi dago gaur egun egia zer den eta zer ez den jakitea zalantzagarria dela, baina horrelako hainbeste kasu egonda, ez dago zalantzarik horrelako kasuak gertatu egiten direla.

Iraganean lortu ditugun eskubide batzuk galdu egin ditugu denboran zehar, eta gertatu diren gatazka guztiak errepikatzen ari direla esango nuke. Ondorio gisa, esan beharra dago, modu batean edo bestean, Estatu Batuak eta Trump presidentea gelditu behar ditugula, horrelako kasuak ez errepikatzeko.

ZAZPI ASTETAN MUNDUKO GATAZKEI BURUZKO HAMASEI ARTIKULU ARGITARATUKO DITUGU. GURE ATARI DIGITALEAN ATAL BEREZIA SORTU DUGU, PIEZA GUZTIAK BILTZEKO. QR KODE HAU ESKANEATU!

KOMIKIA



ZORION AGURRAK



Leire
Zorionak bihotza eta ondo ospatu zure 18 urtebetetzea!! Maialen, aiton-amona eta familien partetik maite zaitugu!! Besarkada handi bat!!



Javier
Zorionak, Zata! Pio, pio, kanario! Ederki ospatuko dugu igandean; joan alpistea prestatzen...eta bete bateria % 100! Bagoazzzz hegan! Besarkada handi bat familiaren partetik!



Maddi
Zorionak, Maddi! Etxebeste, beti prest! Inutil kuadrillako kide izatearekin nahiko ez, eta pringatuenean ere aritzeko prest!



Ana
Zorionak, Ana! Zeinen atsegin hartzen gaituzun; beti irribarrez, kafe goxoa prestatzen diguzu umorez! Goiko bizilagunen partez.

Urte askotarako!

Zorion-agurra jartzeko, hiru bide:

- txintxarri.eus-en erabiltzailea sortu eta *txintxarri.eus/zorionagurrak* helbidean sartu.
- Mezua bidali *txintxarri@ttakun.eus* helbidera, eta idatzi izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.
- Zatoz Ttakunera edo bidali WhatsApp-ez 688 68 35 10 telefonora.

Osteguneko 16:00ak arte jasoko ditugu



BABESLEA

LASARTE-ORIA
UDALA

GIPUZKOA
Foru Aldundia
Babestutako hedabidea

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak diruz lagundua:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

GUARDIAKO FARMAZIAK

LASARTE-ORIA EGUNEZ

OSTIRALA, 27	GIL
LARUNBATA, 28	GANDARIAS-URIBE
IGANDEA, 29	GANDARIAS-URIBE
ASTELEHENA, 30	ACHA-ORBEA
ASTEARTEA, 1	KNIESE
ASTEAZKENA, 2	KNIESE
OSTEGUNA, 3	DE MIGUEL

Eguneko Farmaziak: 09:00-22:00
DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08
KNIESE: Kale Nagusia 71/ 943-36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I.de Loyola 9/ 943-01 95 21

GAUEKO FARMAZIA EGUNERO
22:00etatik 09:00etara
CASTILLA-LARBURU farmazia
Urbieta kalea 7, HERNANI / 943-55 29 41

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK
· ERREGISTROA: 943-37 16 29
· EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84
· KIROLDEGIA: 943-37 61 82
· MANUEL LEKUONA
· KULTUR ETXEA: 943-37 61 81
· GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79
· KIUB: 943-36 16 05
· UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21
· MUNTTERI AEK: 607 62 52 33

LARRIALDI TELEFONOAK
· OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
· DYA: 943-46 46 22
· GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
· UDALTZAINAK: 943-36 24 42
· ERTZAINTZA: 943-53 88 40
· SOS DEIAK: 112

txintxarri WWW.TXINTXARRI.EUS

Argitaratzailea
Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 Lasarte-Oria
G-20407557

Administraria
Nerea Garziarena.

Erredakzioa
Nerea Eizagirre Etxeberria, Iñigo Gonzalez Sarobe, Maddi Noriega Zaldua eta Lierni Apaolaza Urdanpileta.

Publizitatea
Irati Zatarain Peña.

Laguntzaileak
Gorka Lasa, Lierni Rekondo, Jexux Artetxe, Aizpea Amas, Maitane Rebe eta Pili Ormazabal.

Banatzaileak
Nora Navarro, Aimar Hernandez, Gari Iraola, Axier Iraola, Eneko Sanchez, Udane Guisado eta Manex Azkonobieta.

Informatika zerbitzuak
IZT Informatika.www

Publizitatea
Tel.: 943-37 14 48 (106)WhatsApp: 646 82 44 66 publizitatea@ttakun.eus

Egoitza nagusia
Geltoki kalea, 4
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.
Lege Gordailua: SS-513/93
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.300 ale

TXINTXARRI-k ez du bere gain hartzen kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN EGUERDIRAKO.
943-37 14 48 | 688 86 83 10 | *txintxarri@ttakun.eus*

ASTEAZKENA 27

LASARTE-ORIA

- **Matxismaoren aurkako egitaraua:** Kriseilu Gazte Langileen Asanbladako kideek ekintzak prestatu dituzte Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Egunaren harira. 17:30ean, kontaktuko kiroletara hastapena, Estoucha borroka taldearen eskutik. Hori amaituta, 'Emakumearen auzia' hitzaldia egingo dute. Loidibarren pilotalekua 17:30etik aurrera.

LASARTE-ORIA

- **Bertso Astea: Imanol Lizardi Bertsolari Gazteen III. Sariketa** Sei bertsolari ariko dira: Duna Urteaga (Gipuzkoa), Urko Arakistain (Gipuzkoa), Adei Urbitarte (Gipuzkoa), Iradi Barrenetxea (Bizkaia), Jon Abasolo (Bizkaia) eta Maia Ortiz de Zarate (Araba). Mirentxu, 18:00etan.
- **Kontzertua** Usurbilgo Zumarte Musika Eskolako saxofoi ikasleek emanaldia egingo dute. Sarrera, doan. Jalgi Kafe Antzokia, 19:30ean.
- **Zinema** Okendo Zinema Taldeak 'Sacamantecas' filma proiektatuko du. Sarrerek 6,10 euro balio dute. Manuel Lekuona Kultu Etxea, 20:00etan.

OSTEGUNA 28

LASARTE-ORIA

- **Literatura** 0 eta 3 urte arteko haurrei eta euren familiei zuzendutako Liburu Baby Kluba egitasmoaren saioa egingo dute euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez. Txikitatik irakurzaletasuna sustatzea da ekimenaren helburu nagusiak. Udal Liburutegia, 11:00etan.
- **Jaialdia** Jalgune elkarteko kideek kolorez eta emozioz betetako jaialdia egingo dute, gonbidatu ugarirekin. Manuel Lekuona Kultur Etxea, 18:00etan.
- **Kontzertua** The Beatles talde mitikoaren bertsioak joko ditu Psicoacoustic-ek. Sarrera, doan. Jalgi Kafe Antzokia 19:00etan.

ABENDUAK 2

LASARTE-ORIA

- **Bertso Astea: ikasleentzat emanaldia** LH5 eta LH6 mailetako ikasleentzako emanaldia. Unai Muñoa, Andoni Rekondo eta Eli Pagola arituko dira bertsotan, eta ikasleak gai jartzaile Ikastetxeetan lanketa egingo dute saioaren aurreko egunetan eta gela bakoitzak ariketa bat prestatuko du bertsolariek kantuan egin dezaten. Kultur Etxea, 15:15ean.

LASARTE-ORIA



L-OKO UDALA

ZINEMA Okendo Zinema Taldeak egitarau ederra iragarri du 40. urteurrena ospatzeko. 'Sacamantecas filma proiektatuko dute, eta ostean, zuzedariarekin solasaldia izango da. Hori amaituta, Jalgi Kafe Antzokian festa aurrera eramango dute. Ikusi hitzordua agendan.

- **Solasaldia** Euskararen aldeko borrokaren lekukoa hartzeko prest ote daude Lasarte-Oriako gazteak? Galdera horretaz eta beste ugaritaz hausnartuko dute Borobilean Elkarteak antolatutako hurrengo solasaldian. ZEGAk, Burrunbak eta Bagera Euskaltzaleen Elkartea gonbidatu dituzte.

ABENDUAK 3

LASARTE-ORIA

- **Bertso Astea: Earra! eskolakoen saioa** Aurreko urtetako bertso-poteoaren ordez, Earra Bertso Eskolako bertsolari gazteek beste formatu batean eskainiko duten saioa izango da Jalgi Kafe Antzokian aurrera eramango dutena; 18:30ean izango da hori. Era berean, bertso eskolaren 35 urteko ibilbidea irudietan laburbilduko duen argazki erakusketa ere ikusgai jarriko dutela nabarmendu dute antolatzaileek. Jalgi Kafe Antzokia, 18:30ean.

ABENDUAK 5

LASARTE-ORIA

- **Kontzertua** Superlore eta Barbaridad Bagdad taldeak gonbidatuko dituzte Gure Lasarte Zikiña egitasmoko kideek; horien musika emanaldiaz gozatzeko aukera izango dute herritarrek. Xirimiri elkartea, 19:30ean.

PIRRITX, PORROTX eta MARIMOTOTS

Ipuin diskoa



Ze abiadura dute musuek?
Ze zapore du marigorringo baten musuak?
Musuak lapurtu daitezke?
Nora doaz airean geratzen diren musuak?
Konta daiteke urte oso bat musutan?

JARRI MASAILA LIBURU HONEN AZALEAN ETA BEREHALA JAKINGO DUZU!"

Disko bikoitza





Bonberenea ekintzak Euskal Herriko 20 musika talde elkartu ditu pailazoei omenezko bertsio disko bat grabatu eta eskaintzeko. Elkartasunez, auzolanaz eta autogestioaz haizatu kantak eta gora irriak! Maite zaituztegu!

DURANGOKO AZOKAN ZAIN IZANGO GAITUZUE!!

www.katxiporreta.eus

Katxiporreta KOOP.E.

Oria etorbidea, 10
Brunet Eraikina 5, E-4
20160 Lasarte-Oria
Tel: 943 368 404

Osasun gida 2026

Hortz klinikak

PIZARRO
HORTZ KLINIKA DENTAL
ODONTOLOGIA OROKORRA | ODONTOLOGIA ESTETIKOA | KIRURGIA | ENDODONTZIA | PADI | ORTODONTZIA | PERIODONTZIA | ODONTOLOGIA PEDRIATIKOA | ZURIKETA | PROTESIA




IÑIGO DE LOIOLA, 9 BEHEA
LASARTE-ORIA TEL: 747 40 33 21

aldaz
hortz klinikak · clínicas dentales

LEHENENGO KONTSULTA ETA DIAGNOSTIKOA DOAN
DOAKO URGENTZIA ZERBITZUA GURE PAZIENTEENTZAT
ERREHABILITAZIOETAN ESPEZIALISTAK
ODONTOLOGIA ETIKOA



Ola kalea, 10. Lasarte-Oria
www.dentalaldaz.com
943 366 377

R.P.S. 128/24

Fisioterapia

ARALAR
FISIOTERAPIA

FISIOTERAPIA ETA ERREHABILITAZIOA
MUSKULU-ESKELETOAREN EKOGRAFIA
INDIBA ACTIV
PILATES TALDE TXIKIETAN
ESKU TERAPIA

Aralar Plaza 5, behea, LASARTE-ORIA
(+34) 747 48 50 28
www.aralarfisioterapia.com

Fisioterapia

PAGOA
Patricia Gonzalez Belmonte

- Osteopatia
- Masajea
- Drainatze linfatikoa

Tel.: 619 11 10 89
patriciagonzalez.pagoa@gmail.com
Pablo Mutiozabal 2, 1º 3. gela
LASARTE-ORIA

FISIOTERAPIA ETA OSTEOPATIA
Ibaiondo

- 30 urte zuen osasuna zaintzen.
- Esperientzia eta profesionaltasuna.
- Diagnostikoan adituak.

Ordua hartzeko: 943-37 03 06

Ola Kalea, 12 - behea, ezkerra
20160 Lasarte-Oria

Estetika

MAiTE
ESTETIKA ARETOA

• Manikura edota pedikura
• Makillajea • Solariuma
• Aurpegi edota gorputz tratamentuak
• Mota ezberdinetako depilazioak
• Betileen tindatzea eta *lifting*-a...

zerbitzu mistoak

Uistin Kalea z/g • Lasarte-Oria
Tel. 943-37 08 45

Osasun gida 2026

Zure osasuna esku onenetan, Lasarte-Orian!

Hurrengo gida AZAROAREN 27an.
Parte hartu nahi baduzu, jar zaitez gurekin harremanetan: 943-37 14 48 (106) / 646 82 44 66